

ALPROJA ELKARTEAK Euskal jaietako antzerkia antolatzen du urtero, eta, Udal honetako Kultura Departamentuaren iritziz, ekitaldi horiek udal interesekoak dira.

Horrenbestez, 2025. urteko udal-aurrekontuetan, diru-partida izendun bat aurreikusi da, elkarte horri diruz laguntzeko. Beraz, dirulaguntza hau zuzenean emango da, dekretu bidez.

Kultura Departamentuak proposatuta, honako hau **ERABAKITZEN DUT**:

Lehenena.- Ondorengo gastua onartzea:

Ekitaldia	Aurrekontu-aplikazioa	Zenbatekoa
2025	1 0601.481.09.334.30 2025 (7436)	10.000,00 €

Bigarrenena.- Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.2a artikuluari jarraiki, ALPROJA elkarteari gehienez 10.000,00 euroko dirulaguntza izenduna ematea 2025. urtean.

Emakidaren ebazpen hau alda daiteke baldin dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira eta dena den, beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuetatik laguntza edo dirulaguntza gehiago lortu badira edota helburu bererako beste edozein diru-sarrera edo baliabide badaude (ikus ZARAUZKO UDALEKO DIRULAGUNTZEN ORDENANTZA OROKOR ARAUTZAILEA, 10. art.)

Hirugarrenena.- Dekretu hau sinatu ondoren, 7.000,00 € ordainduko zaio ALPROJA elkarteari, dirulaguntzaren % 70ari dagokiona. Gelditzen den % 30a (3.000,00€), berriz, dirulaguntzaren erabilera justifikatu ondoren.

Aurrerakina ordaintzeko ez da derrigorrezkoa izango bermea jartzea.

Laugarrenena.- Eskatutako informazioa DIRULAGUNTZEN DATU-BASE NAZIONALEAN (BDNS) erregistratzea, hark emandako bitarteko elektronikoen bidez, kontzesioaren testuarekin, haren laburpenarekin eta datu egituratuekin batera.

Bosgarrenena.- Puntu hauek arautuko dute dirulaguntza:

1.- Xedea

Aipatutako dirulaguntzaren xedea urteko jardueraren garapena aurrera eramatea izango da.

Zarauzko Udala libre geratuko da diruz lagundutako jardueretatik sortutako erantzukizun zibiletatik eta merkataritzako, laneko edo edozein motatako erantzukizunetatik.

2.- ALPROJA ELKARTEAREN betebeharrak

- Urteko jarduera antolatzea. Horren baitan, ekimena aurrera eramateko beharrezkoa den leku eta azpiegiturei dagokien guztia kontuan hartuko da (kultur jarduerak, soldatak, kolaboratzaileak, gastu arruntak...).
- 2025. urteko jarduera nagusia Euskal Jai eguneko antzerkia antolatzea izango da eta horretako beharrezkoak diren dinamikak martxan jarriko dira. Horretaz gain, Alprojaren ardura izango da behar teknikoak eta teknikariak ordaintzea.
- Gau beltzean Jalgi antzerki taldearekin elkarlana
- Urtean zehar bestelako antzerki ekimenak
- Dirulaguntzen pertsona edo entitate onuradunek nahitaez justifikatu beharko dute jasotako funtsak dirulaguntzaren oinarri izan zen helbururako erabili direla.
- Parekidetasun alorreko betebeharrak:
 - Uztailaren 28ko 26/2015 Lege Organikoan jarritakoaren arabera, sexu-delituengatik zigor administratibo, laboral edo penalik jaso ez duen pertsona fisiko nahiz juridikoa izatea.
 - Emakume eta Gizonen Benetako Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duenak ezarritako betekizunak betetzea.
 - Helburuetan, sarbide-sisteman, funtzionamenduan, ibilbidean, jardueran, antolaketa edo estatutuetan emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa betetzen duen eta sexuaren, ideologiaren, jaioterriaren, nazionalitatearen edo sexu-joeraren ziozko diskriminaziorik egiten ez duen pertsona fisiko nahiz juridikoa izatea (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 40. artikulua).
 - Berdintasunerako eskubidea eta sexuagatik diskriminatuta ez izateko eskubidea urratzeagatik zigor administratibo, laboral edo penalik jaso ez duen pertsona fisiko nahiz juridikoa izatea (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 40. artikulua).
 - Kontuan izatea gizonen eta emakumeen egoerak, baldintzak eta beharrak desberdinak direla, eta horren arabera, diruz laguntzeko programa edo jardueran genero ikuspegia txertatu beharko du.
 - Dokumentazio, idazki, publizitate, irudi eta material guztietan komunikazioa modu ez-sexistan eta barneratzailean erabiltzea. Emakumeak diskriminatzen dituen edozein irudi edo estereotipo sexista saihestea; eta berdintasun-balioak, emakume eta gizonen presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, rol-aniztasuna eta genero-identitate anitzak erakusten dituzten irudiak sustatzea.
 - Dirulaguntza justifikatzeko memorian, sexuaren arabera datuak ematea (kopuru absolutuetan edo portzentajeetan).
 - Bermatzea antolatutako jarduera, ekitaldi edo ikuskizunak eduki sexistarik gabekoak izango direla, eta ezingo dutela diskriminatu sexu, ideologia, jatorri etniko, nazionalitate edo sexu-orientazioko arrazoiengatik.
- Euskararen alorreko betebeharrak:
 - Diruz lagundutako jarduera guztietan bermatuko da euskararen erabilera. Jarduerak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira. Mezu idatziak (kartelak, esku-orriak, gonbidapenak, deialdiak, publizitatea...) eta ahozko komunikazioak (aurkezleak, hizlariak, musika...) euskaraz egingo dira, eta, bi hizkuntzetan eginez gero, beti euskara lehenetsiko da. Diruz lagundutako jarduera euskaraz egiten bada, euskaraz idatzi eta ezagutaraziko da.

- Haur, nerabe eta gazteentzat bereziki antolatutako jarduera guztiak euskaraz egingo dira. Euskararen erabilera bermatuko da arlo guztietan, hedapenean eta jarduera bera gauzatzerakoan ere bai.
 - Dirulaguntzaren onuradunak aurreikusi egingo du hizkuntza zer tratamendu emango dion hirugarrenekin zerbitzuak kontratatzerakoan, bileretan, hitzaldietan, jendaurreko ekitaldietan, idatzizko komunikazioetan (informazio-orriak, kartelak, gutunak, oharrak...), megafonian, web-orrian, WhatsApp-taldeetan...
 - *Euskaraldiak* sustatutako hizkuntza-jokabideak zabaltzen lagunduko du elkarteak. Elkartearen barruan ere, euskaraz egiten saiatuko dira, *Ahobizi/Belarriprest* rolag praktikan jarrita (bileretan, hitzaldietan, entrenamenduetan...).
 - Dirulaguntza justifikatzeko txostena, lehentasunez, euskaraz idatziko da, interesdunek bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan harremanak izateko duten eskubideari utzi gabe. Justifikazioan, jardueraren garapenean sortutako euskarri grafikoen ale bana erantsiko da.
- Prebentzioaren arloko betebeharrak:
- Jardueretan edari alkoholodunen publizitaterik ez egitea, eta 18 urtetik beherakoei edari alkoholodunak eta tabakorik ez saltzea edo ematea.
- Hondakinen tratamenduaren arloko betebeharrak:
- Jardueretan sortutako dituen hondakinak gaika sailkatzea eta behar den bezala kudeatzea.
 - Jardueretan, birziklatutako materialez egindako papera, kartoia... erabiltzea, bi aldetatik inprimatutakoak, eta abar.
- Beste betebehar batzuk:
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluan zerrendatutako egoeretan ez egotea.
 - Dirulaguntzen emakida eragin duen helburua bete, proiektua gauzatu, jarduera egin edo portaera izatea.
 - Dirulaguntza ematen duen organoari edo, hala badagokio, entitate laguntzaileari justifikatzea betekizunak eta baldintzak betetzen direla, jarduera egin dela eta dirulaguntzaren helburua bete dela.
 - Diruz lagundutako jarduera egiteko eta bere zehaztapenak betetzeko behar diren baimen guztiak lortzea.
 - Organo emaileak egin beharreko egiaztapen-jarduerak onartzea eta horietan laguntzea —indarrean dagoen legeriaren arabera—, bai eta kontrol-organoek egiten dituzten beste edozein egiaztapen-eta kontrol-jarduera ere; eta jarduera horiek gauzatzean eskatzen zaion informazio guztia ematea.
 - Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarenak beteta eta egunean dituela egiaztatzea. Zarauzko Udalak zuzenean egiaztatuko du ea interesdunak betetzen dituen Gizarte Segurantzaren eta Foru Ogasunaren zerga-betebeharrak. Interesdunak egiaztatze horren aurka egin dezake; kasu horretan, eskatutako ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.
 - Kontabilitate-liburuak, erregistro izapidetuak eta behar bezala ikuskatutako gainerako dokumentuak edukitzea, kasu bakoitzean onuradunari aplikatzekoa den merkataritzako eta sektoreko legeriak eskatutako baldintzetan.
 - Jasotako funtsak zertan erabili diren justifikatzen duten agiriak gordetzea (agiri elektronikoak barne), egiaztapen-eta kontrol-jardueren xede izan baitaitezke, lau urtez.
 - Organo emaileari jakinaraztea, hala badagokio, diruz lagundutako jarduera finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu

dituela, beste administrazio edo entitate nazional edo nazioarteko publiko edo pribatuetatik.

- Dirulaguntza emateko orduan kontuan hartutako edozein gorabehera objektibo zein subjektiboren aldaketa jakinaraztea.
- Jasotako funtsak itzultzea, ZARAUZKO UDALEKO DIRULAGUNTZEN ORDENANTZA OROKOR ARAUTZAILEAN aurreikusitako kasuetan.
- Jardueran aritzean pertsonaren funtsezko eskubideekiko behar den errespetua erakutsiko da, eta indarrean diren legeak errespetatuko dira.
- Zerbitzuaren ondorioz hirugarrenei eragindako kalteak ordaintzea. Horretarako, erantzukizun zibileko poliza bat izan beharko du.

Betebeharrok diruz lagundutako jarduerak egiten dituen epealdi osoan bete beharko dira, eta horiek ez betetzeak dirulaguntza galtzea eragin dezake.

3.- Diruz lagundu daitezkeen gastuak

Xedean definitutako jarduerak antolatzeko eta burutzeko gastuak lagunduko dira diruz, eta horiek ZARAUZKO UDALEKO DIRULAGUNTZEN ORDENANTZA OROKOR ARAUTZAILEAREN 6. artikuluan zehaztutakoaren arabera egin beharko dira.

Gastuen zerrenda:

Diruz laguntzeko gastuak, lagundutako jardueretan izaerari inolako zalantzarik gabe erantzuten dioten horiek, eta dirulaguntzaren berariazko oinarriek ezarritako epean egiten diren horiek dira.

Zehazki gastu hauek izango dira diruz laguntzekoak:

- Kolaboratzaileen soldatak, zerbitzu profesionalen ordainketa edo eskupekoak (PFEZko atxikipena barne).
- Komunikazio grafikoa, ikus-entzunezko elementuak...
- Administrazioa, kudeaketa eta azpiegiturak: ordenagailua, telefonoa...
- Mantentze gastuak.
- Euskal Jai eguneko antzerkia kenduta (teknika eta muntatze lanak, gainontzeko jarduerak antolatzeko gastuak)
- Aipatutako jardueretako antolakuntza gastuak: karpak, mahaiak...
- Sariak (materiala erosteko baleak: fakturen bidez ordainduko direnak)
- Antzerkiko partaideei egindako lanaren ordainetan bazkari/afari gastuak.
- Egunean bertan jarri beharreko soinu-argi ekipoak, teknikariak eta beharrezkoak diren grabaketa guztiak.

Beste edozein gastu, Kultura Departamentuaren idatzizko baimenarekin.

4.- Organo eskudunak

Alkatetzak izango du dirulaguntza hau emateko eskumena.

Kultura departamentuko arduraduna izango da dirulaguntzaren organo kudeatzailea.

5.- Bateragarritasuna beste dirulaguntza batzuekin

Dirulaguntza hau bateragarria da onuradunak lortzen dituen beste laguntza batzuekin. Hori bai, dirulaguntza honek —bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, sarrera, eta errekurtsioekin

batera— ezin izango du inola ere gainditu erakunde onuradunak egin beharreko jardueraren kostua.

6.- Justifikazioa aurkezteko epea eta modua

Dirulaguntzaren erabileraren justifikazioa 2026ko urtarrilaren 31 baino lehen aurkeztu beharko da.

Justifikazioa Zarauzko Udalaren zerbitzu telematikoen bitartez egingo da.

7.- Dirulaguntzaren erabileraren justifikazioa

Dirulaguntzaren erabilera justifikatzeko, diruz lagundutako jardueren memoria aurkeztu beharko da. Memoria lehentasunez euskaraz idatziko da, interesdunek bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan harremanak izateko duten eskubideari utzi gabe.

Bertan jasoko dira:

- a. Egingako jardueren deskribapena
- b. Lortutako helburuak.
- c. Genero-ikuspegia txertatzeko hartutako neurrien deskribapena.
- d. Partaideen kopurua, sexuaren arabera (kopuru absolutuetan edota portzentajetan).
- e. Hizkuntza ofizialen erabilera
- f. Erabilitako euskarri grafikoak
- g. Emaizten ebaluazioa
- h. Beste gai batzuk

Halaber, onuradunak bere gastu eta diru-sarreraren guztien kontuak aurkeztu beharko ditu.

- Diruz lagundutako jardueren gastuen eta diru-sarreraren balantzea, entitateko idazkariak sinatuta eta dagokion zigiluarekin.
- **Jarduera guztiaren gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatu bat, entitateko diruzainak sinatuta.** Datu hauek emango dira: hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data, eta hala badagokio, ordainketa-data. Dirulaguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, gertatutako desbiderapenak adieraziko dira.
- Aurreko paragrafoan aipatutako zerrendako gastuaren frogagiriak, edo pareko frogabalioa edo administrazio-eraginkortasuna duten dokumentuak, dirulaguntza publikoaren xedea bete dela ziurtatu ahal izateko. Dagozkion transferentzien agiriak edo dirulaguntza kobratuko den kontu-korrante/euskarriko mugimendu guztien xehetasuna aurkeztuko da (hain zuzen ere, diruz lagundutako epealdikoa).
- Gastuak justifikatzeko ohiko era faktura edo ordainagiria izango da (PFEZaren atxikipenarekin, hala badagokio). Faktura sinplifikatuen erabilera (tiketak) **kasu zehatzetara mugatuko da**, eta horiek derrigorrez bete beharko dute fakturazio betebeharrak arautzen dituen 2013ko otsailaren 26ko 8/2013 Foru Dekretuaren 7. artikulua, bertan agertzen diren baldintzen arabera.

8.- Publizitatea

Dirulaguntzen onuradunak diruz lagundutako edozein programaren, jardueraren, inbertsioren edo jardunen izaera publikoari buruzko publizitatea egin beharko du, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz (**euskarari lehentasuna emanda**).

Publizitate horretan, Zarauzko Udalaren erakunde-irudia txertatu beharko da derrigorrez, lehentasunezko tokian. Eta baita, eskuko programetan, azal nagusian edota atzeko azalean edo euskarri elektroniko eta ikus-entzunezkoetan.

Dokumentazio, idazki, publizitate, irudi eta material guztietan komunikazioa modu ez-sexistan eta barneratzailean erabiliko da.

9.- Itzulera-kausak

Hauek izango dira dirulaguntza itzularazteko arrazoiak:

- Dirulaguntza akordio honetan jarritako xederako ez erabiltzea.
- Elkarre onuraduna desegitea.
- Akordio honetan jarritako baldintzak ez betetzea.

ZARAUZKO UDALEKO DIRULAGUNTZEN ORDENANTZA OROKOR ARAUTZAILEAREN 24. eta 25. artikuluetan aurreikusitako prozedura jarraituko da dirulaguntzaren itzulera eskatzeko.

10.- Araudia

Akordio honetan aurreikusi ez den orotan arau hauek aplikatuko dira: Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko BOE); horren garapenerako erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa (uztailaren 25eko BOE); eta Zarauzko Udalean indarrean dagoen ordenantza orokorra.

Hartutako erabakiek administrazio-bidea amaituko dute.

Alkatea

